

Mobilizatzeraz deitu ditugu langileak, Sanchez eta Cuixarten atxiloteten aurrean

Kataluniako parlamentuak independentziarako adierazpena onartu zuen pasa den astean, etenaldian geratu zena bide negoziatu eta adostuari aukera eman nahian, hau da, negoziatziorako ate bat zabalik utzita. Orduan esaten genuen Espainiako Estatuak ez zutela kontutan hartuko negoziatziorako eskaintza hau. Gure aurreikuspen ilunenak bete dira. Ukazioa eta errepresioa erabili du orain arte Estatuak, debekua eta mehatxua, eta bortizkeriaz erantzun dio prozesuari.

Koska bat estuago joan da orain, Jordi Sanchez ANCKo burua eta Jordi Cuixart Omnium Cultural-ekoa baldintzarik gabe kartzeleratuta, delitu larriak egotzita. Oraingoan, Carmen Lamela epailearen eskutik etorri da erabakia, Altsasuko gazteak urtebete kartzelan edukitzeagatik ezaguna gurean.

Onartezina iruditzen zaizkigu atxilotetak, eta Sanchez eta Cuixart lehenbailehen askatzea eskatzen dugu.

Gure babes osoa daukate, herriaren borondate demokratikoari bide ematea da euren delitu bakarra; alde bikotasuna ezinezkoa denean, bide demokratikoetatik alde bakartasuna lantzea, hain zuzen ere.

Orain arte bezala, Euskal Herriatik gure babes osoa erakutsi nahi diogu Kataluniak abiatutako bide demokratikoari eta konpromisoa adierazi Euskal Herrian ere alde bakarreko burujabetza prozesu soziala martxan jartzeko. Eragileen arteko adostasunak lantzen jarraituko dugu horretarako.

Gaur, Kataluniaren eta demokraziaren alde eta atxilotuak berehala askatzea eskatzeko mobilizazioetan parte hartzeko deia egin nahi diegu langileei. Besteak beste, 19:00etan Gure Esku Dagok herri guztietako plazetan deituta dituen elkarretaratzeetan.

Mobilizazioa eta herritarren aktibazioa da Kataluniaren bidea hauspotzeko tresnarik eraginkorrenetakoa eta ezinbestekoa Euskal Herrian ere alde bakarreko burujabetza prozesu soziala martxan jartzeko.